

# 2 Estatistika produktuak

## Lisboako estrategiaren egiturazko adierazleak



Europako Batzordeak Lisboako Estrategiaren ebaluaketa eta jarraipenerako zehaztutako hamalau adierazle nagusien bilduma, egitura ekonomiko orokorra, enplegua, berrikuntza eta garapena, berrikuntza ekonomikoa, gizarte kohesioa eta ingurumena direlako arloetan.

Bertan erakusten da, denborazko ikuspegi batean, Euskadik EBko estatukide eta taldeekiko, AEBekiko eta Japoniarekiko duen maila.

# 2 Estatistika produktuak

## Egiturazko taulen bilduma




Produktu honek EAEko eta Espainiako egiturazko aldagaien hautaketa zabala biltzen du. Ekonomiaren analisisian gehien erabiltzen diren zenbatekoak modu azkar batean kontsultatu ahal izateko pentsatuta dago.

Haien artean, BPGren hazkundea, biztanleria, lan merkatua, inflazioa eta beste zenbait aipatu behar dira. Taulen bilduma hau egiteko hainbat estatistika iturri erabiltzen dira, hala nola Eustat, INE, Gizarte Segurantza, INEM eta abar. Taulak euskaraz eta gaztelniaz eskaintzen dira.

# 2 Estatistika produktuak

## Ikerbide



Datu base honek EAEko ekonomiaren estatistika informazio berriena lortzea ahalbidetzen dio erabiltzaileari. Produktu honen balio erantsia erakunde publiko eta pribatu zenbaiten informazioa biltzea da.

Datu base hau erabili ahal izateko ezinbestekoa da programa ezartzea (web orrialdean eskura daiteke) eta datuen fitxategia jaistea. Fitxategi hau hilabetean behin eguneratzen da. Programa diseinatuta dago euskaraz zein gaztelaniaz lan egiteko.

# 2 Estatistika produktuak

## Aurrekontu gauzatzearen estatistikak



Estatistika hau Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Administrazioen jardura ekonomiko eta finantzarioa hiru hilez behingo aldizkakotasunarekin ezagutarazteko helburuarekin aurkezten da.

Bertan aurkezten dira, sailkapen ekonomikoaren arabera, aipatutako erakundeen gastu eta diru sarreren aurrekontuen egikaritzapenaren hiruhileko bakoitzaren amaieran metatutako zenbatekoak.

# 2 Estatistika produktuak



C-Intereg egitasmoaren oinarrian hiru helburu nagusi daude:

**1-Datu base bat eraikitzea, autonomia erkidegoen artean gauzatzen diren ondasunen eta zerbitzuen salerosketak bilduko dituen.**


**2-Web orri bat garatzea, azterlanetan lortuko diren emaitzak azkar argitaratzeko bidea izango dena.**

**3-Eskualdeen arteko merkataritzaren esparruan azterlanetarako bide iraunkor bat zabaltzea.**

Izan ere, C-Intereg egitasmoak ekonomiaren azterketarako estatistika informazioan dagoen hutsunerik garrantzitsuenetariko bat -Estatuko geografia (autonomi erkidegoa) eremuen arteko merkataritza harremanen ezagutza zehatza eta eguneratua, alegia- estaltzeko sortu da. Argibide horien artean, erositako salgaien informazio zehatza eta beraiek garraiatzeko erabili diren bideak eskainiko dira.

# 2 Estatistika produktuak

## Udalmap



Udal Informazioko Sistema bat da, bere baitan Jasangarritasun Adierazleen Panel bat eta Udal Ekipamenduen eta Azpiegituren Panel bat daramatzana. Bere helburua EAEko udalerrien errealitatea zehatz-mehatz ezagutzea da.

Horregatik, lurraldearen hazkunde eta garapenarekin lotutako eremu anitzetan erabakiak hartzea errazteko helburu duten herri politikak diseinatzen eta ebaluatzen laguntzen duen tresna bat da, lurraldetasun, ekonomia eta gizarte alorretan kohesioari nahiz ingurumenarekiko errespetuari dagokienez maila handiagoa lortzeko helburua duena.